

ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIAREN 2020. URTERAKO LAN-PLANA

BERDINTASUNA

2020KO LAN-PLANA

- 1.- Aldez aurretik hautatutako enpresa multzo batean berdintasun-planak borondatez ezartzeko 2019. urtean itundutako metodologia abian jartzea eta, esperientzia horietan oinarrituta, arloari buruzko irizpideak eta orientazio orokorrak lantzea.
2. Berdintasun-planak borondatez ezartzeko prozesuan parte hartzen duten berdintasun-batzordeetako kideei zuzendutako prestakuntza espezifikoko programa bat ezarri eta aplikatzeko oinarri komunak.
- 3.- Berdintasun-neurriak eta berdintasun-planak negoziazioaren bidez ezartzen laguntzeko negoziazio kolektibora bideratutako irizpideak eta orientazioak lantzea.
- 4.- Berdintasunak negoziazio kolektiboan duen tratamenduaren eta eraginaren diagnostiko eguneratua eta "balio bereko lanari" buruzko beste azterlan batzuk egitea.
- 5.- Kontziliazio erantzunkiderako mekanismoak oro har hobetzea, negoziazio kolektiboaren bitartez: hitzarmenak, itunak eta akordioak.

ENPLEGUA

2020KO LAN-PLANA

- 1.- Enplegurako lanbide-heziketako (euskal) eredu propio bat diseinatu eta ezartzeko oinarriak.
- 2.- Enpleguaren Euskal Estrategia berritzeko oinarri partekatu batzuk aztertzea eta lantzea.

LANBIDE HEZIKETA

2020KO LAN-PLANA

- 1.- Enplegurako lanbide-heziketako (euskal) eredu propio bat diseinatu eta ezartzeko oinarriak.
- 2.- Bizialdi osoko orientazio-eredu integratu bat abian jartzeko oinarri komunak eta irizpide partekatuak identifikatzea eta azaltzea: ereduaren eduki materiala eta gobernantza-irizpideak.
- 3.- Lanbide-heziketako sistema integratua adostutako lehentasunen esparruan garatzeko ekintzak ezartzea, Lanbide Heziketaren Euskal Legean aurreikusitakoa aplikatuz.

LANEKO OSASUNA

2020KO LAN-PLANA

- 1.- Prebentzioko ordezkariari zuzendutako aldizkako prestakuntza- eta birziklatze-ekintzak diseinatzea eta aktibatzea, 1999ko Lanbide arteko Akordioaren esparruan.
- 2.-Prebentzioko ordezkarien erregistroa aktibatzea, hasierako prestakuntza eta birziklatze-prestakuntza babesteko tresna gisa.
- 3.- Enpresek laneko arriskuen prebentzioarekin duten konpromiso eraginkorra baloratzeko adierazleak identifikatzea.
- 4.- Kontratazio publikoaren eta diruz laguntzeko moduko beste ekintza batzuen bidez prebentzio-politika sustatzeko ekintzak diseinatzea.
- 5.- Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2021-2026.
- 6.- Enpresa txiki eta ertainetara zuzendutako Prebentzio Kulturaren Euskal Behatokiari buruzko akordioa ezartzea eta haren jarraipena egitea.

INDUSTRIA

2020KO LAN-PLANA

- 1.-4.0 industriarako bidezko trantsizioa egiteko Euskal Itun Soziala sinatzea eta garatzea.